

BEHIN BETIKO PROPOSAMENA

GERNIKA-LUMO

2019-2022 EPERAKO EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP)

ESPARRU BAKOITZERAKO EKINTZAK ETA JARDUERAK

SARRERA

Nabarmena da euskarak Gernika-Lumon egin duen **aurrerakada azken 30 urteetan**. Gure aurrekoek, urte zailetan, lan eskergea egin zuten eta hori gogoan izatekoa eta eskertzekoa da.

Euskara hizkuntza ofiziala denetik, hainbat urrats eman dira sendotu dadin, lege-babesa, baliabideak, laguntzak, atxikimenduak eta abar. Bide horretan, Gernika-Lumoko Udalak bere ekarpena egin eta eutsi egin dio udalerrri mailan euskarari bultzada emateko lanari.

Hori guztia, gure hizkuntzaren **normalizazioa helburu** eta, horretarako, euskararentzat arnasguneak sortzeari ekin zaio makalik daukagun esparruetan, erabilerarako baldintza egokiak finkatuz. Horixe dugu erronka, ezagutzatik erabilerarako urratsa ematea euskaradunok, **euskaraz bizi izateko hautua egitea**. Egindakoarekin pozik egonda ere, **zeregin erraldoia aurretik** daukaguna.

Egin behar horretarako, ezinbesteko tresna izan dugu **EUSKARA BATZORDEA**, aurreko plangintzaldietarako hausnarketa eta aholkularitza gune. Aurrerantzean, Euskara Batzordearen garrantzia aintzat hartuz, gizarte esparru desberdinetako partaidetza areagotzeko bideak jorratu beharra dakusagu (lan- mundua, merkataritza, kirola,...).

2019-2022 eperako Plan Estrategikoa-ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) moldatzea dagokigun une honetan, aipagarria dugu 2018ko martxoan abian jarri zen **PARTAIDETZA PROZESUA**, Euskara Batzordea bitarteko, eta horri lotutako **DINAMIZAZIO SAIOAK** (www.gernika-lumo-euskaraz.com). Prozesu horren emaitzak funtsezkoak izan dira honako Plan Estrategikoa moldatzeko eta, horri eskerrak, begi askoren ikuspuntutik plana errealitatera hobeto egokitu ahal izan da, duda barik. Beraz, geure eskerrona dinamizazio saio horietan ekarpenak egin eta lanean aritu izan diren guztiei. Argitu behar, prozesu hori guztia ESEPN arabera burutu dela, aurreko plangintzaldian Eusko Jaurlaritzak indarrean jarritako metodologia.

Jarraian dagoen Plan Estrategikoa-ESEP ulertzeko, oinarritzakoak dira honako **ERANSKINAK**:

- 1.- **I. eranskina** (“2014-2018 epeko Plan Estrategikoaren balantzea eta egungo egoeraren diagnostikoa”), orain arteko ibilbidearen diagnostiko zehatza izateko.
- 2.- **II. Eranskina**, Euskara Batzordean garatu den partaidetza prozesuaren emaitzak (dinamizazio batzarrak).

ARGIBIDEAK - OHARRAK:

- Ekintza Planaren egitura (ESEPn arabera)

1. Helburu estrategikoa: Euskararen jabekuntza	2. Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera	3. Helburu estrategikoa: Euskara elikatzea.	Helburuak lortzeko zehar lerroak
Esparruak: 1.- Familia bidezko transmisioa 2.- Irakaskuntza 3.-Euskalduntze-alfabetatzea	Esparruak: 4.- Administrazioa 5.- Gune geografiko euskaldunenak 6.- Arlo sozio-ekonomikoa 7.- Aisia eta kirola	Esparruak: 8.- Liburugintza 9.- Kulturgintza 10.- Publizitatea 11.- Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea 12.- Hedabideak 13.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	- Euskararen aldeko motibazioa: 14.- Sentsibilizazioa eta motibazioa - <u>Euskararen zabalkundea:</u> 15.- Barruko proiektzioa 16.- Kanpoko proiektzioa

Oharra.- “Helburuak lortzeko zehar lerroak” edo transbertsalak, hau da, helburu bat baino gehiagorekin lotutako ekintzak.

- Kodearen esanahia (adibidez 1.1.4.1. azpi-ekintza):

- **1. esparrua** (“Familia bidezko transmisioa”)
- **1.1. Neurria** (“Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea –Toki Erakundeak-”)
- **1.1.4. Ekintza** (“Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea”)
- **1.1.4.1. Azpi-ekintza** (“Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia”)

- Testuaren (letraren) koloreak adierazten duena:

- **Letra beltzez** adierazita daude ekintzak (*1.1.4.- Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea ...*). Bigarren zutabearen daude azpiekintzak/jarduerak (*1.1.4.1.*), aurreko plangintzaldian (2014-2018) indarrean egondako ekintzetatik hartuak.
- **Letra urdinez** dagoen testuak (“...**SOBREA /MATERIALA: ku-ku, liburuxka,...**”) adierazten du gaur egun ekintza hori zelan garatzen den.
- **Letra gorritz** dagoenak (“**BERRIA.- Guraso eskolen bidez hizkuntza ohitura tailerrak eskaini**”) adierazten du Plan Estrategiko berrirako dinamizazio saioetan jasotako ekintza-proposamena dela (batzuetan beste ekintza batean txertaturik daude, horrekin bat egiten dutelako, eta, beste batzuetan, ekintza berezitat hartu izan dira, berri-berriak direlako).

I. Helburu estrategikoa: Euskararen jabeakuntza

1.- Familia bidezko transmisioa

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz
1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea (Toki erakundeak)				
1.1.4.- Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea	1.1.4.1.- Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia... (sobrea /materiala: ku-ku, liburuxka,...)	HNT	- Erregistroa - Anbulatorioa - Alkarbide	Urtero
	1.1.4.2.- Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneetan eskuragarri jarri... epk kanpaina	HNT	- Eskolak - Jostailu dendak - Alkarbide	Urtero
1.1.6.- Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen	1.1.6.1.- Irakaskuntza zentroetako Normalkuntza Planetan gurasoekiko normalkuntza ekintzak sendotu.... eskolak /normalkuntza planak	HNT	- Udal Eskola Kontseilua - Alkarbide	Urtero
	1.1.6.2.- Pediatriarekin elkarlana sakondu (emagina). Erabilera+transmisioa... Alkarbide/Aldundia+Osakidetza= Batzorde teknikoa	Eusk. Zin. Hezk. Zin.	- HNT - Guraso elkart.	2019 2020
	(BERRIA) 1.1.6.3.- Guraso eskolen bidez hizkuntza ohitura tailerrak eskaini	Hezk. Zin. Eusk. Zin.	- HNT - Udal Eskola Kontseilua	2020 eta jarraikoak
1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (Toki erakundeak)				
1.3.1.- Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea (AZPIEK)	1.3.1.1.- “Euskara olgetan errotu” kanpaina burutu, gurasoak eta umeak batera jolasean ..(FAMILIA LEHIAKETA)	HNT	- URE elkartea - Gaztedi Arloa	Urtero
	1.3.1.2.- Udan ludoteka familiarra antolatu	HNT	- URE elkartea - Gaztedi Arloa	Urtero
	1.3.1.3.- Jolasleketan eragiteko egitasmoak (“Kalean olgetan” kanpaina)	HNT	- URE elkartea - Gaztedi Arloa	Urtero

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoen” atalean (25. orrialdea)

2.- Irakaskuntza

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz
2.1. Euskararen jakite-maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza sendotu eta metodologia eta baliabide berriak garatzea				
2.1.8.- Ikastetxe bakoitzean hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jardueraplangintza egitea, hau da, hizkuntza-proiektua egitea	2.1.8.2.- Ikastetxeetan euskararen <u>normalkuntza planak</u> garatzeko laguntzak eskaini eta koordinatu. (ohiko deialdia)	Hezk. Zin. Eusk. Zin.	- HNT - Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	Urtero
	2.1.8.2 - Udal Eskola Kontseilutik koordinatzen ez diren eskolazkanpoko ekintzetarako diru laguntza deialdia. (ohiko deialdia)	“ “	“ “	Urtero
	(BERRIA) 2.1.8.3.- EPAko arduradunekin landu modua ikasleak Berbalagunera bideratzeko, hitzaldiak, elkarlana	Eusk. Zin.	- Berbalagun tekn. - HHI zuzendaritza - HNT	2019
	(BERRIA) 2.1.8.4.- Ikastetxeetako normalkuntza planak eta kirol elkarteetako dinamikak uztartu	Hezk. Zin.	- Eusk. zin. - Udal Esk. Kont. - HNT - Kirol Patronatua	2020
2.3. Ahozko hizkuntza-jarduna lantzea, bereziki eremu soziolinguistiko erdaldunagoetan				
2.3.1.- Ahozko jardunaren ahuleziak gainditzeko, irakasle zein ikasleei begirako estrategia egokia garatzea	2.3.1.1.- ARRUE ikerketako metodologia erabilia. Haur Hezkuntzako 5 urteko geletan azterketa sakona egin, gurasoen transmisioa dela eta. Transmisioa jorratzeko proiektua abiatu (Berritzegunea / Udal Eskola Kontseilua)	HNT	- Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	2020
2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea				
2.4.4.- Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harreman-hizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)	2.4.4.1.- <u>Bertsolaritza</u> Gernika-Lumon urteroko programa sustatu eta lagundu (irakaskuntza zentroetan Bertsozale elkartearen bitartez)	Hezk. Zin. Eusk. Zin.	- HNT - Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	Urtero
	2.4.4.2.- <u>Euskara Zine</u> aretoetara programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko baliabideak eskaini (aretoak, diru laguntza,...) (IRUDI BIZIAK eta TINKO)	“ “	“ “	Urtero
	2.4.4.3.- Ahozko adierazmena indartzearen <u>antzerkingintza</u> sustatu Eskola munduan (jardunaldiak, diru laguntzak,...) (antzerki jardunaldiak)	“ “	“ “	Urtero

	2.4.4.4.- Eskolarteko dantzari eguna, Udak Eskola Kontseiluan aintzat hartutako ekintza komuna (eskolarteko dantzari eguna)	“ “	“ “	Urtero
	2.4.4.5.- Idazmena sendotzeko, Idazlan Koadernoaren egitasmoa garatu eta inplementatu LH/DBH/Batxilergoko ikasleen artean.	“ “	“ “	Urtero
	2.4.4.6.- Irakurzaletasuna bultzatu DBHko ikasleen artean Gaztezulo aldizkariaren harpidetzarekin (BEITU digitala urte osorako DBH 3. Mailan eta paperezko euskarriarekin ale batzuk geletan erabiltzeko)	“ “	“ “	Urtero
2.5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea (Toki erakundeak)				
2.5.1.- Gizarte, aisia eta kultur taldeekiko loturak sendotzea	2.5.1.1.- Irakaskuntza, euskara eta ingurune hurbilaren kontua lantzeari erreparatuta, eskola publikoaren eta ikastolen jaialdietarako garraioa lagundu (bidaiak antolatzea)	Hezk. Zin. HNT	- Kultur Etxea - Guraso elkarteak	Urtero
2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea				
2.6.1.- Kanpotik etorritako nerabeengan arreta berezia jartzea eta haietzako programa bereziak garatzea	2.6.1.1.- DBHko Ikasle etorkinei ikastaro bereziak eskaini, euskara ikasi eta sendotzeko	Hezk. Zin. Eusk. Zin.	- HNT - Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	Urtero
	(BERRIA) 2.6.1.2.- Eskoletako Normalkuntza Planetan etorri berriei harrera egiteko finkaturiko protokoloak Eskola Kontseiluan hausnartu eta partekatu helburuak	Hezk. Zin. Eusk. Zin. Ongiz. Zin.	- HNT - Udal Esk. Kont. - Inmigrazio tekn.	2020
	(BERRIA) 2.6.1.3.- Euskaraz bizitzeko esperientziak BIZI. Bidea egin (HUHEZI-ko erasmusekoentzat ereditutik ideiak hartu)	Hezk. Zin. Eusk. Zin.	- HNT - Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	2020
2.6.2.- Kanpotik etorritako gurasoei informazioa eta laguntza emateko programak garatzea, sentsibilizazioaren mesedean (AZPIEK)	2.6.2.1.- Jarraipen zehatza egin matrikulazioari etorri berriei dagokienean hurrengo urteetan. (Berritzegunea/Mankomunitatea)	HNT	- Eusk. Zin. - Inmigrazio tek	Urtero
	2.6.2.2.- Mankomunitateko Inmigrazio teknikariarekin elkarlana, etorri berriak gizarteratze hizkuntza irizpideak kontuan izan daitezen (Mankomunitatea / Lanbide Ekimenak)	Eusk. Zin.	- HNT - Inmigrazio tek - Lanbide	Urtero

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoen” atalean (26. orrialdea)

3.- Euskalduntze-alfabetatzea

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz
3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak (Toki erakundeak)				
3.8.2.- Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea	3.8.2.1.- "Berbalagun proiektua jorratzeko taldeak sortu herrian (atzeritarrak, euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak aintzat hartuta)... BERBALAGUN	AEK tekn.	- Eusk. Zin. - HNT - Udal Euskalt - Bust. Eusk. Bizi	Urtero
	3.8.2.2.- Helduen adin-taldea kontuan hartu. Berbalagun indartu eta Hizkuntza portaeretan eragiteko tailerrak antolatu.	Eusk. Zineg.	- Euskalt. zuzendariak - Berbalaguneko Talde Eragilea	Urtero

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoen” atalean (26. orrialdea)

II. Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera:

4.- Administrazioa

Esparru honi dagokionean, EUSKARA PLAN berria moldatzen ari gara 2018-2022 eperako Udaleko Talde Eragilean.

Bestalde, dinamizazio saioetan esparru honi lotuta egindako ekarpenak, zehar lerrokoen atalean txertatu ditugu 25. eta 26. orrialdeetan (hiru ekintza berezi hurrengo ataletan: 14.1.1. eta 14.5.2.).

Informazio zehatza eskaintzeko, jarraian dago PLAN horri buruzko SARRERA IDATZIA eta nahi duenak eskuragarri izango du “Planaren zirriborroa”.

“ ...

1. EUSKARA PLANAREN SARRERA IDATZIA

1.1. Planaren testuingurua

Ezaguna denez, euskal herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua plangintzaldika kudeatzen da, eta plangintzaldi bakoitzak bost urte irauten du. Lehen plangintzaldia 1990an jarri zen martxan, eta orain arte, bost izan dira: lehenengo bietan, Administrazioako langileak **euskalduntzeari eta alfabetatzeari** eman zitzaion lehentasuna, alegia, euskararen ezagutza sendotzeari; hirugarrenean (2003-2007) eta laugarrenean (2008/2012), berriz, Administrazioan euskara erabiltzeari eman nahi izan zitzaion garrantzirik handiena. Eta ezagutzak garrantzia izaten jarraitu bazuen ere, **erabilera** izan da beti erronka nagusia.

Horiek horrela, euskara ere lanerako **hizkuntza** normala eta **normalizatua** bilakatu nahi izan dugu V. plangintzaldian ere (2014-2017), eta, modu horretan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Ildo horretatik, VI. Plangintzaldirako (2018-2022) ere lekuko berari eutsi nahi zaio, euskara zerbitzu hizkuntza bai, baina lan hizkuntza normalizatua ere izan dadin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erreglamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik, herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren oinarri ere badira.

Horrela, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien 86/1997 Dekretuak euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.

Urrats horiekin loturik, Gernika-Lumoko Udalak, beraz, indarrean dagoen arautegia zein bere eskumeneko eremurako emandako jarraibide eta ordenantzak betez berari dagokion euskararen erabilera normalizatzeko Udalaren Euskara Plana landu du VI. Plangintzaldirako (2019-2023).

1.2. Helburuak

Udal erakunde guztietan **euskararen erabilera indartzea eta areagotzea** da euskara-planaren helburu nagusia.

Plangintzaldi honetan markatutako xede nagusi hori lortzeko honako oinarri hauek landuko ditugu:

1. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak.
2. Beste administrazioekiko harremanak euskaraz izango ditu gure administrazioak.
3. Gure udal administrazioan, euskara zerbitzu hizkuntza izango da eta udal langileentzat lan hizkuntza.
4. Udal langileek funtzio komunikatiboetan euskarari emango diote lehentasuna, langileen artean maila formalean zein informalean euskaraz arituz, eta, beti ere, herritarren hizkuntza hautaketa errespetatuz.

1.3. Parte-hartzaileak

- Udaleko langile guztiak izango dira partaide Euskara Plan honetan, hau da, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna ezarrita duten 119 langile (143 ken 11 hutsik daudenak, ken 13 -8 TGA-dunak eta 5 derrigortasun bakoak-). Beraz, udal bulegoetako eta Fundazioetako langileak, guztiak, hartuko ditu aintzat (1. Eranskinean lanpostu zerrenda). Langile berririk kontratatuko balitz, Planaren dinamikan sartuko litzateke.
- Ezarritako lehentasunen arabera, langile batzuk plangintzaldi osoan izango dira subjektu ekimen puntaletarako eta, beste batzuk, ordea, aldi batean.
- Planaren burutzapena eta inplementazioaren ardura izango duen Talde Eragilearen bitartez, zinegotziak ere parte izango dira Euskara Plan honetan, saila edo zerbitzu bakoitzean aplikatu beharreko hizkuntza irizpide eta estrategien jarraipena egiteko.

1.4. Tresnak eta emandako urratsak

VI. Plangintzaldi honetarako (2019-2023) Eusko Jaurlaritzak erabilera Planak kudeatzeko modua aldatu egin du eta eredia prestatu du ERREFERENTZIA MARKO ESTANDARRAREN arabera, hau da, BIKAIN ziurtagiria eskuratzeko erabiltzen den metodologiari eutsiz.

EME-ren arabera, enpresa munduan erabiltzen den kudeaketa sistemari jarraitzen zaio, helburuak eta adierazleak zehaztuz, eta horri jarraipena egiten zaio bidezko neurketak eginik. Gainera, Plan Estrategikoak eta horiei lotutako Kudeaketa Planak eratzeko eta jarraipenerako HIZKETA aplikazio informatikoa moldatu du.

Hori horrela, honako urratsak bete dira VI. Plangintzaldirako Plan Estrategikoa eta 2018ko Kudeaketa Plana gauzatzeko:

- **1. URRATSA.**- 2014-2018 epeko Udalaren Euskara Planaren ebaluazioa burutu da, urte askotako ibilbidearen ikuspegi orokorra emanda. Txosten horretan, pozteko ondorioak eta kezkatzeko ondorioak islatzen dira (**1. eranskina**).
- **2. URRATSA.**- Erakundearen autodiagnostikoa burutu behar izan da bi galdetegi erabilita; bata, erakunde gisa erantzun beharreko galdetegia, eta ,bestea, langileei egindako galdetegia. Horren emaitzak daude **3. eranskinean**.

Sailak	Ianpostuak	Langileak	Inkesta banatu	Inkesta erantzun dutenak	Erantzun dutenen %
Idazkaritza/Alkatetza	9	7	7	7	%100
HAZ/Erregistroa	7	5	5	5	%100
Kontuhartzailletza	6	5	5	5	%100
Bulego teknikoa	5	5	5	5	%100
Kultura/Euskara/Hezk	9	9	6	6	%100
Hirig/Obrak/Zerbitzuak	5	5	5	5	%100
Gizarte Ekintza	2	2	2	2	%100
Udaltzaingoa	23	21	21	17	%80,95
Lan Taldea	16	15	15	14	%93,33
Beste zerbitzu batzuk	5	3	3	2	%66,66
	87	77	74	68	%91,89
Udala (udaletxeko bulegoak)	87	77	74	68	%91,89
Kirol patronatua	12	11	11	11	%100
Kultur Etxea	30	28	28	19	%67,86
Lanbide Ekimenak	8	5	4	3	%75
Udal Euskaltegia	6	6	1	1	%100
GUZTIRA	143	127	118	102	%86,44

Inkesta fidagarritzat jotzeko, hurrengo faktoreak hartu dira kontuan:

- Inkesta banatu zaie 118 langileri (kanpoan geratu dira lanpostu bakanteak eta TGA dutenak –euskara teknikariak eta udal euskaltegiko irakasleak-) eta erantzun dute 102 langilek (inkestatuen %86,44).
- Inkestaren emaitzak fidagarriak izan daitezzen, %80a gainditu behar da erakunde osoan eta komenigarria da atal bakoitzean ere portzentaje horretatik gorakoa izatea. Akats bakarra Kultur Etxean dago; 28 inkestatik 19 jaso dira, %67,86.
- Portzentajerik altuena Kirol Patronatuarena (%100), kopuru handia ez bada ere. Baina kopurutan handia izanik, aipagarria da Udaletxeko zerbitzu eta sailetako erantzuna (%91,89).
- **3. URRATSA.-** Aurreko urratsaren arabera, ekin behar zaion atal bakoitzeko datuak/kopuruak kontuan hartuta, HIZKETA aplikazioa erabilia 2018-2022 PLAN ESTRATEGIKOA moldatu da, lortu nahi diren helburuak ahal den neurrian kuantitatiboki finkatuz. Sarrera idatzi honi lotuta dago Plan Estrategikoa.
- **4. URRATSA.-** Aipatu HIZKETA aplikazioa erabilia eta Plan Estrategikoa kontuan hartuz, 2018ko KUDEAKETA PLANA gauzatu da, atal bakoitzean burutzeak diren ekintzak proposatuz (**7. eranskina**). Hona hemen ekintza kopuruaren laburpena:
 - **Zerbitzu hizkuntza (25)**
 - Erakundearen irudia: 13 ekintza
 - Herritarrekiko harremanak: 12 ekintza
 - **Lan hizkuntza (87):**
 - Barne harremanak: 22 ekintza
 - Pertsonen kudeaketa: 9 ekintza
 - Kanpo harremanak: 33 ekintza (Administrazioa 10 / Erakunde pribatuak 12 / Bestelakoak-Kolaboratzaileak 11)
 - Kudeaketa sistema: 23 (Pertsonak 7 / Estrategia 9 / Herritarrek eta zerbitzu-Hizkuntza irizpideak 6)

1.5. Administrazio atal elebidunak eta euskarazkoak

Apirilaren 15eko 86/97 Dekretuaren arabera, laugarren helburu mailakaturik (perfilen derrigortasun indizea %70-%100 tartekoa) dagokio Gernika-Lumoko Udalari, indizea %76 delako (euskaldunak %70 + ia-euskaldunak %12 /2 = %76). Horren arabera, administrazio atal guztiak elebidun izateaz gain, pixkanaka euskarazko atalak izendatu behar dira.

Aipatu Dekretuari eutsiz, euskarazko atal izendatzeko baldintzak hauexek dira:

- Atalaren derrigortasuna %80tik gorakoa izatea eta ataleko langile guztiek edo ia guztiek (%80tik gora) hizkuntza eskakizunaren jabe izatea.
- Atal-burua ere dagokion hizkuntza eskakizunaren jabe izatea.

Horren arabera, honako atal hauek izendatzen dira euskarazkoak:

Administrazio-atala	Lanpostu kopurua guztira	Hizk. Eskakizuna egiaztaturik (atal-burua barru)
HAZ (Erregistroa) (*)	7 (2 hutsik)	5
Idazkaritza (*)	8 (2 hutsik)	6
Kontuhartzaitza	6 (1 hutsik)	5 (%83)
Kultura/Hezk/Eusk (Turismo)	6+3TG	6 (%100)
Hirigintza/Obra eta Zerb.	5	4 (%80)
Bulego teknikoa	5	5 (%100)
Kirol Erakundea	12 (1 hutsik)	10 (%83)
Lan Taldea	16	14 (%87)
Musika Eskola (Kultur Etxeko azpi atala, mikroplana duena)	18	16 (%88,8)
Euskaltegia Fundazioa	1+5 TG	1 (%100)
Guztira	84+8 TG (6 hutsik)	66

(*) Ikurra dutenak euskarazkotzat jo ditugu (HAZ zerbitzua eta Idazkaritza), %80ko portzentajera ez direlako iristen hutsik dauden lanpostuengatik. Beteta dauden lanpostuetako langile guztiek egiaztatuta dute perfila.

1.6. Euskara Planerako “Talde Eragilea”

Aurreko plangintzaldietako jokabideari jarraituz, Euskara Planaren garapena eta inplementazioa Talde Eragilearen ardura izango da. Honako hauek osatuko dute:

- Talde-burua: Euskara zinegotzia
- Talde-kide finakoak: Kultur, Euskara eta Hezkuntza Batzorde informatiboko zinegotziak, udal idazkaria, Hizkuntza-Normalkuntzarako Teknikaria, Trebatzailea, Udalean ordezkariak duten sindikatuen delegatuak.
- Talde-kide dagozkien gaietarako: Erabilera Planeko langileak edo udal sailtako arduradunak.

Beraz, Talde Eragileak beteko du Udaleko Euskara Batzordearen papera, udal sailtako arduradunek zein sailburuek unean uneko gaien arabera parte hartuz eta, beharrezko denean ere, batzar monografikoak antolatuz (euskaraldia, kontratazioarako irizpideak, hornitzaileekiko harremanak eta hizkuntza irizpideak, diru laguntzetarako hizkuntza irizpideak,...).

1.7. Plan Estrategikoaren eranskinak

Esandako guztiaz gain, aurreko plangintzaldian baliagarri izan diren eta gaurko egunean balioa duten eranskinak ere gehituko zaizkio Plan Estrategiko horri. Beraz, eranskin guztiak honako hauek dira:

- **1. Eranskina:** 2014-2017 epeko Euskara Planaren ebaluazioa
- **2. Eranskina:** indarrean dagoen lanpostu zerrenda
- **3. Eranskina:** Inkestaren/Autodiagnostikoaren emaitzak
- **4. Eranskina:** Euskararen erabilpenerako udal ordenantza
- **5. Eranskina:** Hizkuntza irizpideak (barne eta kanpo harremanetarako)
- **6. Eranskina:** Kontratazio irizpideak (Eusko Jaurlaritzak 2006an beretzat onartutakoak).
- **7. Eranskina:** 2018ko Kudeaketa Plana

...”

5.- Gune geografiko euskaldunenak

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz
5.1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea (Toki erakundeak)				
5.1.2.- Udallerri euskaldunenetako osasun, justizia eta gizarte zerbitzuetan euskararen erabilera lehenestea	5.1.2.1.- Ongizate arloarekin elkarlan berezia eratu, bere menpeko erakundeekiko harremanetan hizkuntza irizpideak txertatzeko..... MANKOMUNITATEA	Eusk. Zin.	- HNT	2019
5.1.4.- Udalez gaindiko administrazioek gune euskaldunenetako herritarrei ematen dieten zerbitzua euskaraz eskaintzea	5.1.4.1.- Alkarbiden lan-mahai berezia sortu. Aldundia bitarteko horrelako erakundeetan eragiteko protokoloak finkatzearen (lan mahai desberdinak: transmisioa, aisia/kirola, lan-mundua)	HNT	- Alkarbide - Eusk. zin.	2019 (urtero jarraipena)
5.1.6.- Helduentzako edozein arlotako etengabeko prestakuntza euskaraz eskaintzea	5.1.6.1.- Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, ...eragileekin elkarlanean:...(euskaraz bizi karpeta, Errenta aitorpena euskaraz, Gidabaimena euskaraz,...)	HNT	- URE elkartea - Bust. Eusk. Bizi	Urtero
	5.1.6.3.- Helduentzako era guztietako ikastaro eta ekimenak antolatu euskaraz: erlajazioa, sukaldaritza, lehen arreta, dantza ikastaroak, reflexoterapia...(Berbalagun, Kultur Etxea,...)	HNT	- Berbalagun - Kultur Etxea	Urtero
5.1.8.- Arreta berezia jartzea haur eta gazteentzako eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen, jarduera- eskaintza egiazki zabala izan dadin eta eskaintza horren garapenean hezkuntza komunitate osoak eta herri- administrazioek parte har dezaten	5.1.8.1.- Euskara Batzordean ikastetxeen partaidetza ziurtatu (deialdirako zerrendan daude)	Eusk. Zin.	- HNT	Urtero
	5.1.8.2.- Udal Eskola Kontseilua bilgune, ikasturteko eskolaz kanpoko egitarau komunari buruzko hausnarketa burutu (irailean eta urrian)	Hezk. Zin. Eusk. Zin.	- HNT - Irakaskuntza zentroak	Urtero
5.1.11.- Etorkinak euskarara hurbiltzeko egitasmo eraginkorrak sustatzea (irakaskuntzaren, aisialdiaren zein euskalduntzearen ikuspegitik)	5.1.11.1.- Etorkinekin “bikote linguistikoak” egitasmoa garatzen lagundu / BERRIA (honekin lotuta).- “Berbatruke” ko laguntzaileekin sentsibilizazioa landu, informazioa eman	Eusk. zinegotzia	HNT Lanbide Mankomunitatea Euskaltegiak EPA	Urtero

6.- Arlo sozio-ekonomikoa

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz
6.1. Euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea eta dirulaguntzen sistema etengabe hobetzea (Toki erakundeak)				
6.1.3.- Enpresa pribatuen lankidetzaren areagotzea komunikazio kanpaina egokien bidez	6.1.3.1.- Merkatari eta ostalari elkartearekin eta Buy Urdaibai erakundearekin bilgunea sortu eta hitzarmena sinatu, guk euren foroetan eta euren guretan parte hartzeko (elkar laguntza)	Eusk. Zin.	- HNT - Eusk. dinam. - Merk. Elk. - Buy Urdaibai	2019
	6.1.3.2.- Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: diru-laguntzak, laguntza teknikoak (HITZARGUNE)	Eusk. dinam.	- Hitzarguneko enpresa - HNT	Urtero
6.1.4.- Enpresa txiki eta ertainetan planak garatzeko aukerak eskaini eta areagotzea	6.1.4.1.- HITZARGUNE kanpaina garatu enpresa txiki eta ertainetan (laguntza teknikoak, aholkularitza, Euskara planak...)	Eusk.dinam.	- Hitzarguneko enpresa - HNT	Urtero
	6.1.4.2.- HITZARGUNE kanpaina garatu merkataritza eta ostalaritza arloan (diagnostikoa, laguntza teknikoak, aholkularitza...)	Eusk. dinam.	- Hitzarguneko enpresa - HNT	Urtero
	6.1.4.3.- Bai Euskarari ziurtagiriaren elkartearekin hitzarmena sinatu elkarlanareko Hitzarmena	Eusk. Zin.	- Ziurtagiri Elk - HNT - Eusk. dinam.	Urtero
6.1.12.- Eragile nagusien arteko elkarlana sustatzea	6.1.12.1- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin hitzarmena sinatu elkarlanean kanpaina zehatzak burutzeko HITZARMENA	Eusk. Zin.	- Kontseilua - HNT - Euskalgintza	Urtero
6.3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea				
6.3.2.- Jendeari begirako establezimendu edo zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresek kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak modu progresiboan berma ditzaten neurriak hartzea,...	6.3.2.1.- Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen eta enpresarien/merkatarien hizkuntza betebeharren inguruko kanpaina	Eusk. dinam.	- HNT - Hitzarguneko enpresa	2021

6.4. Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea				
6.4.2.- Kanpoko irudian, idatzizko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea	6.4.2.1.- Enpresetako erabilera planetan edo mikroplanetan hizkuntza irizpide minimo batzuk finkatzea... HITZARGUNE	Eusk. Dinam.	- HNT - Hitzarguneko enpresa	Urtero
	(BERRIA) 6.4.2.2.- Hizkuntza paisaia bereziki landu Hitzargune programaren bidez, enpresen datu-basea eguneratuta	Eusk. dinam	- HNT - Hitzarguneko enpresa	2020
6.8. Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea				
6.8.1.- Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea (kanpainak,...) hizkuntza kudeaketa egoki batek dakartzan onurak azpimarratzeko eta euskara kalitatearekin, lehiakortasunarekin eta ongi-izatearekin identifikatzeko	6.8.1.1.- Banan-banako elkarrizketak egin merkatari eta ostalariekin paisaia linguistikoak euskararen erabileran duen eraginaz (hitzarmengintza, merkataritza eta ostalaritza)	Eusk. dinam.	- Hitzarguneko enpresa - HNT	Urtero
